



BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO

# urratsak

4. URRATSA  
2018ko ekaina

## Norentzako turismoa?

Turismoaren analisi kritiko  
bat globalizazioaren  
testuinguruan



iparhegoa

IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA

**LAB**  
>ekintza soziala



**Rodrigo Fernández Miranda** "Tres de Febrero" Unibertsitate Nazionaleko Ekonomia Sozialeko Ikasketen Zentroko (CEES – UNTREF Argentina) irakasle eta ikertzailea eta Alba Sud elkarteko ikertzailea ([www.albasur.org](http://www.albasur.org) Catalunya).



## Turismoa kritikoki pentsatzeko premia

**A**rtikulu honek globalizazio ekonomikoaren testuinguruan nazioarteko turismoaren analisi kritiko bat egiteko xedea du, herrialde zentral eta periferikoe-tako modalitate turistiko masifikatuan zentratuz.

Abiapuntu gisa, industria turistiko globalizatuak bere bu-ruaren irudi positibo indartsu bat eraikitzen jakin izan duela aipatzea zentzuzkoa da, bere bertute eta potentzialtasunen inguruko kontsentsu soziala alde izanda eta komunitate eta lurraldeengan eragiten dituen inpaktu anitzak ezkutatuz. Hala ere, jarduera honen hazkunde, masifikazio, deslokalizazio eta hedapen geografikorako prozesuak ingurugiroarekiko eta izaera soziokultural eta ekonomikoko kalte sakonak eragiten ari dira.


Era berean, turismoa globalizazioaren jarduera ekonomiko esanguratsu eta paradigmaticoetako bat da. Turismo eredu hau globalizazio prozesuak agerian uzten dituen arazo ekonomiko, sozial eta natural nagusiekin zuzenean zein zeharka lotuta dago: garraio eredu, energia, Ipar-Hego ha-

rremanak, kontsumo eredu, aldaketa klimatikoa, naturaren zaintza edo hirigintza eta lurraldearen antolaketa, besteak beste.

Turismo eredu honen funtsezko bi ezaugarriak etengabe-ko hazkundera eta lurralde periferikoetarantz hedatzea izan dira. Lehenik eta behin, nazioarteko desplazamenduak 50 aldiz biderkatu dira azken 60 urteetan (2009an 1989 urtearekiko bikoiztu ziren; 2030 urteak 2009 bikoiztea aurreikusten da: 1945ean baino 90 bider desplazamendu gehiago). Ondoren, herrialde periferikoei mundu mailako turismoaren tartaren banaketan euren parte-hartzea 15 urtetan %30 handitu zuten, ia %50era iritsiz.

Hau kontuan hartuta, jarduera hau problematizatu eta jendartean ditugun bidaiatzeko, atsedean hartzeko, ezagutzeko zein gozatzeko modu eta praktika hegemonikoak birpentsatzeko beharra dagoela agerikoa da. Era berean, ezinbestekoa da gai hau mugimendu eta eragile sozialen agenda eta eztabaidetan barnebiltzea.





## Globalizazioaren industria boteretsuenaren eraikuntza

**G**lobalizazio ekonomikoan turismoak garatu duen forma ulertzeko, beharrezkoa da jarduera honen ikuspegi historikoaren analisia aintzat hartzea, beraz XXI. mendeko industriarik garrantzitsuena izatera eraman duten gertaera eta politika nagusiak identifikatzeko.

Bere genesiak Industria Iraultzan du jatorria. XIX. mendeko Ingalaterran bilatu behar ditugu haren sustraiak, Thomas Cook apaizaren berebiziko ekarpenean, lehen bidaia agentzia sortu eta eraikuntza honetan plano ideologiko, estrategiko zein operatiboan funtsezko ekarpena egin zuen eta.

1944ean sinatutako Bretton Woods-eko Akordioak turistizazio prozesuan beste mugari bat izan ziren. Hauen onarpenaren ondoren hasi zen benetan jardueraren hazkunde esponenziala eta hedapen prozesua. 70eko hamarkadan sektorearen liberalizazioa eman zenetik aurrera, nazioarteko turismoa globalizazio ekonomikoaren aitzindarietako bat bilakatzen joan zen.

XXI. mendeko lehen urteetan, turismoa planetako industriarik boteretsuena bilakatu zen, mundu maila BPG-aren %12 inguru, automozioaren, petrolioaren, elektronikaren eta elikaduraren aurretik, baita nazioarteko merkataritzaren lehen lerroa ere. Horrez gain, munduko ekonomian hazkunde handiena duen eta enplegu gehien sortzen dituen jarduera da.

Izan ere, mundu mailan jarduera ekonomikoak liberalizatzeo eta desarautzeko presioak, pertsonen eta salgaien abiadura biziko mugimendua, eskala ekonomiak eta kontsumismoaren hegemonia turismoa globalizazioan nazioarteko merkataritzaren lehen lerroan kokatzen duten faktoreak dira, munduko zerbitzu-espazioaren herena eta munduko produktu gordinaren hamarrena. Aldagai teknologikoak eta energia merkeak den-

boren, espazioen eta kostuen murrizketa eragin dute: azkarra, urrunago, eta merkeago ere bai.

Goiko grafikoan XX. mendetik gaur egunera arte pertsonen nazioarteko desplazamenduek izan duten garapena azter daiteke.

Datu hauek prozesu historiko desberdinetan aztertuz gero, nabarmena da mundu mailako Ekonomiaren Hogeita hamar Urte Lortasuetan (1950-1973) desplazamendu kopurua 10 aldiz biderkatu zela, 1975 eta 1989 artean bikoiztu egin zela eta Berlingo Harresia erori zenetik 2017 arte berriro ere hirukoiztu zela. Guztira, 1950 urtetik pertsonen nazioarteko desplazamenduak 66 aldiz biderkatu ziren. Bitartean, aurreikuspenek kopuru hauek gora egiten jarraituko dutela diote: 1600 milioi 2020an eta 1800 milioi 2030ean.

Hazkunde honen azkartzea agerian uzten duen adibide bat Mexiko da, une honetan nazioarteko bisitari gehien jasotzen dituen munduko herrialdeen hamargarren posizioa betetzen duelarik: 2009an soilik gerraosteko lehen urteetan mundu osoan urteko eman ziren desplazamendu guztiak baino atzerriko bisitari gehiago jaso zituen (21,5 milioi). Bere aldetik, Munduko Turismoaren Elkartek 2018an desplazamenduan areagotzea mantenduko dela aurreikusten du, %4 eta 5 arteko hazkunde-tasarekin (OMT, 2008).

Testuinguru honetan, herrialde periferikoen papera gero eta garrantzitsuagoa da nazioarteko turistak jasotzeari dagokionez. Izan ere, 1995 eta 2009 artean Hegoaldeko herrialdeek %10 handitu zuten turismo globalizatuaren tartan euren parte hartzea, herrialde zentralen erregistratutakoa bikoizten duen hazkunde tasa batekin. Baina turistizazio prozesu hauek nazioarteko bisiten anfitrioi diren jendarte, lurralde eta ekonomiengan inpaktu sakonak eragiten doaz.



## Kontsumismo turistikoa

**K**ontsumo turistikoa bisitariak euren desplazamendu eta egonaldian zehar gauzatzen dutena da, bidaiak, ostatua, janari eta edaria, garraioa, aisia, kultura eta kirol, olgeta zein erosketak jarduerak barne. Begi bistakoak zein sotilak diren elementuek motibazio eta asebetetze elementu gisa jarduten duten eta sektore eta azpi-sektore desberdinen eragina duen kontsumoa. Pertsonak produktuengana mugitzen diren kontsumo honen berezitasun bat, egunerokotasunetik distantzia hartzea ahalbidetzen duen desplazamendu fisiko bat barnebiltzen duela da, baita turisten eguneroko bizitzan ematen ez den esperientzia edo bizipen desberdin batekin lotzen dela ere.

Turismo praktika hegemonikoak eredu kontsumistarengandik berezi-ezinak dira: bere logikak, dinamikak eta ideia zein balio sistemak ematen diote zentzua eta inpaktu berberak dauzka. Jendarte globalean, gero eta azkarrago eta gero eta urrunago bidaiatzeko desira areagotzen ari da eta jendarte oparoek osatutako mundu mailako gutxiengoan masifikatzen.

Kontsumismoak kontsumoa helburu bilakatzen du, eta beharizanez harago erostez gain, munduan egoteko ideologia bat adierazten du, kontsumo-objektuen gaineko esangura subjektibo indartsuak sortuz. Jendarte kontsumistan hedonismoak eta berritasunak, balio gisa, zentraltasuna

eskuratzen dute, gozagarriak izateaz gain, berritasunaren eta desberdinen balio erantsia duten esperientzia eta sententzioen bilaketa motibazio iturri bilakatuak. Beste ezaugarri bat kontsumitzailea etengabeko mugimenduan egotea da, asebeteko duten esperientzia horien atzetik. Honek pertsonak sinbolikoki bidaiari bihurtzen ditu, desplazamendu iraunkor batera bultzatuta.

Kontsumitzaileentzako, turismoak denboraren eta espazioaren kontrol eta botere forma oso bat ordezkatzeko du. Bizipen kontsumistan, jarduera hau askatasunaren egikaritzea eta askapen iturri bezala bizitzen da, turistak betebeharratik salbuesteko gaitasunarekin, egunerokotasunetik aldenduz edo estresaren atzaparretatik askatuz: errutina iraultzeko funtzioa duen ihesaldi-mekanismoa (Korstanje, 2009).

Globalizazio ekonomikoak kontsumo-jendarteetako bizipen estilo eta lehentasunak homogeneizatzea eta uniformizatzea eragin zuen, eta horrela, globalizatutako ondasunak eta zerbitzuak ere. Indarrean dagoen turismo eredu masa-helmugetan eskuragarri antzeko harrera-azpiegiturak, mugikortasuna, ostatu eta aisi-eskaintza aurkitzeak uzten du agerian joera hori. Desberdintasunak ezabatzeko eta homologazio prozesu bat ematen da, zeinetan helmuga hauen arteko berezitasunak transformazio eskaletara mugatzen diren, "... herrialde kapitalista garatuaren lurraldetasun, ekonomia eta kontsumo-kultura ereduak erreproduzitzen" (Hernández, 2009).

Publizitatearen diskurtsotik helarazten den errelatoaren arabera, turismoa "zoriontasunaren industria" da, askapen pertsonalarena. Zentzu horretan, kontsumo turistikoa muturreko hedonismoaren aldarrikapenak, plazeraren moralak, askatasunaren pertzepzio zehatz batek eta oporraldian zehar denbora eta espazioaren kontrol absolutuak ere ezaugarritzen dute.

Era berean, merkataritza ikuspegi batetik, turismo eredu hau mass-tigge deitzen dena kontsidera daiteke, mass (masa) eta prestigge (prestigioa) hitzen joko bat, hau da, klase ertainen eskura dagoen luxu bat. Horregatik, nahi-gura kontsumoa (edo handinahia) sustatzen du, prestigio, ongizate eta bizi-kalitate adierazle da eta, gainerakoengandik bereizteko trena bat.

Horregatik, kontsumoaren ikuspegitik turismoaren beste gako bat segmentazioa eta merkatuen dibertsifikazioa dira. 80ko hamarkadara arte segmentazioa irizpide logiko edo naturalen arabera ematen zen, adina edo helmugaren ezaugarriak, esaterako. Doktrina, politika eta praktika neoliberalen hedapenarekin, eta paraleloki enpresa-lehia biziagotzearekin, ordea, segmentazio irizpideak sofistikatu egin dira, turismo modalitate ezin xelebreaok sortzera arte.

Azkenik, turismo mota honen helmugen inguruko hausnarketa labur bat egin behar dugu. Eredu honen logiketan, espa-

zioa ez da erabiltzen, beste esangura bat ematen zaio, horrela funtzionalizatu eta ekoizpen-bide bilakatu. Merkantilizazioaren logikaren menpe, espazio behatutik espazio kontsumituta pasa gara (Benzeny, 2012).

Turistek masa-helmugen bertsio egokitu eta guztiz partzial bat bisitatzeko, ezagutzen eta esperimentatzen dute. Desnaturalizatutako eta antzeztutako birsorkuntza bat, zeinetan turistek benetakotasuna errentagarria eta komertzialki onuragarria denean bakarrik bizi ahal izango duten. Beraz, turismoak helburu horixe duten espazioak sortzeko joera du: pribatizatuak, isolatuak eta enbarazurik gabeak, helmugetan ez-ezagutza edo elkarrekintza kultural anekdotikoa eta merkantilizatua bermatuko dutenak.

Horregatik, turismo eredu hau kontsumo-jendartearen beharrei erantzuteko prestatuta dago, eta seguruenik, eredu kontsumistaren isla esanguratsuenetariko bat izango da. Hala ere, nahiz eta masa-turismoari buruz hitz egiten den, errealitatea da munduko biztanleriaren %20 besterik ez diren kontsumo-jendarte deitutako horien jarduera eskusiboa dela eta planetaren baliabideen %80 kontsumitzen dutela. Turismoaren kasu zehatzean, munduko biztanleriaren zazpiren baten bakarrik du xede turistikoaren gainerako beste sei zatiak bisitatzeko aukera (Duterme, 2007). Ondorioz, nahiz eta "kontsumoaren demokratizazioaren" ideia txertatu, turismo hau planetako gutxiengo batentzako bakarrik dago eskuragarri.

## Nazioarteko turismoaren makineria eta armadura

**T**urismo honen analisi kritiko batean aintzat hartu beharreko beste elementu bat makineria turistikoa sostengatzen duen armadura da, eta mundu mailan bere hedapena eta funtzionamendua ahalbidetzen duten eragile publiko eta pribatuek osatutako engranajea.

Mugikortasunaren eta aisialdiaren makinaria global honen motor eta eragile izarra enpresa transnazionalak dira. Hegoaldeko merkatu geografikoetan zehar hedatzen dira euren iritsiera eta jarduera mesedetzen duten joko arauak baliatuta, hala nola, merkataritza barrera baxuak, lan erregulazio malguak, ingurugiro legedi permisiboa, pizgarri fiskal altuak, esplotazio faktoreen kostu txikiagoak eta tokiko botere publikoek emandako lagapen eta kontzesio multzo oso bat. Horregatik, industriaren onuradun nagusiak ere eurak dira, bakarrak ez bada.

Bestalde, operadore turistiko handien fusio, erosketa eta integrazio bertikal zein horizontal prozesuak gero eta handiagoak eta azkarragoak dira. Mundu mailako hotel marka nagusiak Europan eta Estatu Batuetan egoitza duten enpresa multzo txiki baten kontzentratuta daude. Munduko 10 hotel kate nagusien logela eskaintza, eskaintza osoaren %20a da; 35.000 hotel eta 4,3 milioi logela 15 korporazioaren esku daude. Era berean, konpainia hauen lurralde hedapena nabarmena da: Accor-ek esaterako, 80 herrialdetan du presentzia; Starwood Hotels & Resorts-ek 95 herrialdetan; eta Intercontinental Hotel Group-ek 100 baino gehiagotan (CEPAL, 2008).

Gainera, euren lobby-en bitartez, ordezkatzeko dituzten enpresengan eragina izan dezaketen erabaki politiko eta legedi nazional, erregional zein globaletan eragin dezakete, euren interesak babesteko. Modu sektorialean eta "itzaletan" jarduten duten lobby-en helburua afera pribatu bat Estatu-afera edo interes publikoko kontu bilakatzea da, eta euren interes ekonomikoak erabaki politikoetan ahalik eta hoberen islatzea.

Turismo globalizatuaren lobby nagusia sektoreko ehunka

enpresa handienek osatutako Bidaia eta Turismoaren Munduko Kontseilua (WTTC, World Travel & Tourism Council) da. Munduko herrialde eta erregio askoren aurrean defendatzen ditu bere interesak, baita jardueraren garapenerako aliantza publiko-pribatua sustatu ere (WTTC, 2013). Aireko garraioan, Aireko Garraioaren Nazioarteko Elkarteak 240 airelinea ordezkatzeko, planetako aire-trafikoaren %84 (IATA, 2013).

Eragile publikoek ere paper aktiboa dute periferiarantz hedatze honetan. Iparraldeko Estatuak, euren kapital turistikoaren nazioartekotzea promozionatzen bultzatzen dute. Horretarako tresna desberdinak baliatzen dituzte, adibidez, finantzazio mekanismoak, laguntza programak edo laguntza funtsak. Hegoaldeko Estatuak, euren ekonomia irekiz, horretarako inbertsioak erakartzeko politikak ezarriz eta merkatu askearen mesedetan politika ekonomikoaren arloan erabaki politikoak hartzeko eta planifikatzeko eskumenak murriztuz. Horretarako mekanismo batzuk hauek izaten dira: "atzerriko inbertsioak erakartzeko" legeak, mozkinak jatorrira eramateko askatasuna, pizgarri fiskalak eta turismo, eraikuntza eta garraio arloetan politika ultraliberalak.

Azkenik, nazioarteko erakundeek turistizazio prozesua sustatu eta mundu mailako merkatu librearen alde egin dute. Dela politika neoliberalen inplementazioa kanpo zorrarekin trukatzu (FMI), dela proiektu turistikoaren finantzazioaren bidez, dela sektoreko enpresa transnazionalak mesedetuz eta helmuga den herrialdean zor publikoa sortuz (BM), dela, batez ere, Munduko Merkataritza Elkartetik bultzatutako Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorren bidez.

Deslokalizazioaren eta kontzentrazioaren bidez ematen den hazkunde eta hedapen prozesu honetan, nazioarteko sektore pribatuaren, Estatu zentralen eta nazioarteko erakundeen, batetik, eta, bestetik, Estatu hartzaile berrien arteko indar korrelazioa zeharo eta gero eta desorekatuagoa eta asimetrikoagoa da.





## Ereduaren inpaktuak

**J**ardueraren analisirako funtsezkoa den beste bloke bat maila lokal zein globalean eragiten dituen inpaktuekin lotutakoa da: "tximiniarik gabeko industriaren" tximi- niak, hain zuzen ere.

Bere hazkunde nabarmenez gain, nazioarteko turismoaren arrakasta nagusienetariko bat iritzi publikoan eta iruditegi kolektiboan ke eta tximiniarik gabeko industria bat dela txertatzea izan da, horrela eragiten dituen inpaktu negatiboetako batzuk ezkutatuz. Hauek jarduerarekin lotutako beste sektore batzuei lotzen zaizkie, eraikuntza eta garraioari adibidez, baina badirudi turismoaren industria salbuetsita geratzen dela.

Modu eskematikoan azaltzeko, Ipar-Hego masa turismoari buruzko diskurtso hegemonikoa horrela egituratzen da: jendartearen ongizatea, garapen humano eta soziala, pobreziaren zein desberdintasunen murrizketa eta kohesio soziala liberalismo ekonomikoaren, globalizazio ekonomikoaren garapenaren eta enpresa-lehiaren arrakastaren araberakoak dira. Partzialak bezain interesatuak diren axioma eta adierazleetan oinarritzen

den eta isiltasun diskurtsibo esanguratsuak dauzkan diskurtsoa.

"Isuri efektua" bezalako axiomak edo Barne Produktu Gordina zein Atzerriko Inbertsio Zuzena bezalako adierazleak ez dira nahikoa, ez baitituzte oinarrizko kontuan islatzen, ingurugiroan eragindako kaltea edo desberdintasun sozialak, besteak beste.

Hegoaldearen turistizazio prozesuak bere ekonomiaren, lanaren, jendartearen, kulturaren eta ingurugiroaren ezaugarrien muturreko aldaketa suposatzen du. Munduko turismoaren birbanaketan, lurralde eta biztanleria periferikoa jardueraren inpaktu negatiboekin geratzen da, baina mozkinen zati handiena ukitu gabe. Turismo eredu honen inpaktu nagusiak hiru bloketan bereizi ohi dira: ingurugiroarekikoak, kulturarekikoak eta ekonomiarekikoak.

Maila ekonomikoan, inpaktuen zentraltasuna merkataritza eta ekonomia harreman injustu, asimetriko eta desorekatuak dira, zeinetan hala nahita nahasten diren "hazkunde ekonomiko" eta "garapena" bezalako kontzeptuak. Herrialde hartzaileetan transnazio-



nalek eskuratutako etekin ekonomikoak euren jatorrira askatasunez eraman ahal izateak, "garapen" hori lparaldera eramaten du. Datu gisa, Ipar-Hego turismoaren mozkinen aberriratzetasa %80ra iristen da, eta "dena barne" eskumuturrekoen kasuan, %90era.

Beste inpaktu ekonomiko bat aldi baterako eta kalitate baxuko zein sindikalizazio gutxiko enplegu prekarioaren sorrera da. Gainera, jarduera tradizionaletako lanpostuen suntsiketa hartu behar da kontuan. Adibidez, jarduera turistikoak lur eta ur eremu handien erabilera aldatzea eskatzen du, zuzenean nekazaritza eta arrantza eraginez. Horregatik, ezinbesteko baliabide eta ondasunen prezioen igoera kontuan hartu behar da, pribatua den negozio batean funts publikoen parte hartzea edo helmuga den herrialdearen mundu mailako ekonomiarekiko menpekotasun handiagoa.

Ingurugiroari dagokionez, makinaria turistikoa ingurunea kalteztzen duen eragile nagusia da, aldaketa klimatikoan zeresan handia duena gainera. Ekosisteman aldaketak eragiteko lau faktore nagusi daude: espazio fisikoaren behar handia; baliabide eta ondare naturalarekin harremana aldatzea; beharrizan energetiko eta materialen beharra haztea; eta zaborren areagotzea.

Lau faktore hauek ez dute kontuan hartzaile diren herrialdeen zama gaitasuna, beraz "kalte fisiko, ekonomiko, soziokultural edo naturalik eragin gabe zein bisitarien asebetetze mailan jaitsiera nabarmenik eragin gabe, toki bat aldi berean bisita dezakeen gehienezko pertsona kopuru" (PNUMA, 2005) bezala

ulertuta. Beraz, naturaren zaintza eta turistizatutako inguruen baldintzak mehatxatzen dituzten ondorio anitzak daude.

Azkenik, inpaktu sozialak hartzaile den herrialdearen biztanleriaren eta bisitarien arteko harreman asimetrikoen, giza balioen eta balio ez-materialen erosioren eta balore kontsumisten nazioartekotzearen ondorioz ematen dira, baita ondare kulturalaren esplotazioaren eta bertako gizarte egituraren eraldaketaren ondorioz ere.

Gero eta txikiagoa izan bertako biztanleriaren parte-hartzea jarduerari dagozkion erabakietan, orduan eta handiagoak izan ohi dira inpaktuak. Sozialki zaugarriagoak diren sektore sozialengan eragin handiagoa duen eta egungo belaunaldien bizi kalitateaz gain, etorkizunekoena ere baldintzatzen duen "aztarna turistikoa" da. Eskaintzaren kontzentrazioa eta dibertsifikazio eza ondorio hauek handitzen dituzten faktoreak dira.

Turistizazioaren logikan, komunitateen bizi bermatzeko erabiltzen diren baliabideak pribatizatu, merkantilizatu eta merkaturako lehengai bihurtzen dira, Harvey-k (2017) desjabetze bidezko metaketa deitzen duena produzituz.

Turistizazioa enpresa transnazionalen aberasteko eskubi-dea eta jendarte oparoen hedonismoa esportatzea eta globalizatzea da, harrera herrialdeetako egungo eta etorkizuneko herritarren zati handi baten eskubide ekonomiko, sozial, natural eta kulturalen ginetik.

## Praktika turistikoak birpentsatzeko beharra

**I**ruditegi kolektiboan txertatutako egia bat, kapitalismo globala legitimatu eta kontsumo jendarteak islatzen dituen, ekoizpen, merkaturatze eta kontsumo ereduaren muga eza da. Baliabide, energia iturri, ondasunen ekoizpen, mugimendu edo zaborren sorrera mugagabeen fikzioa. Nazioarteko turismoaren erretorikak muga biofisikoen ahanztura interesatua agerian uzten du, nahiz eta ingurugiroan eragindako kalteak gero eta agerikoagoak eta zalantzan jarri ezinagoak diren.

Zentzu honetan, desazkundearen ideia ikusgarritasuna irabazten joan da azken urteetan herrialde zentraletan. Jarduera turistikoan desazkundek, lehenik eta behin, planetaren eta biosferaren mugei egokitzeko prozesu sozioekonomikoen muturreko doitze bat eskatuko luke. Horrek ez du esan nahi turismoaren murrizketa bat bakarrik, baizik eta kontsumo-jendarteak osatzen dituzten gutxiengoen kontsumoaren gaineko hausnarketa bat. Desazkundek erdigunean pertsonak jarriko dituen, ingurugiroaren zaintza, geldotasuna, neurritasuna eta gertukoa balioan jartzea lehenetsiko duen turismo ereduaren alde egitea suposatzen du.

Turismoari buruzko hausnarketa kritikoa ez da soilik inpaktu negatiboak gutxitu edo saihestea, baizik eta, ezereen gainetik, egoeraren aldaketan ekarpena egingo duten praktika turistikoak sortzea. Norabide honetan, hainbat kontu eduki daitezke atseden hartzeko, ezagutzeko eta bidaia baten bidez gozatzeko unean.

Lehenik eta behin, abiapuntu gisa, desplazamendu bati ekin aurretik ezinbestekoa da funtsezko informazioa eskuratzeko. Gure bidaien "aztarna turistikoari" behatu behar diogu: ze inpaktu dituzten praktika turistikoek ingurugiroarengan, lurraldearen baliabideengan edo bertako komunitateen bizi baldintzengan edo eskubideen bermeengan.

Honek esan nahi du nork irabazten duen eta nork galdu aztertzea.

Praktika turistiko eraldatzaile eta sostengarri bat zenbait printzipioren gain oinarritzen da: elkartasuna, jardueran parte hartzen duten eragileen arteko harreman kooperatibo bidez; justizia ekonomikoa, ondasunak eta ekoizpen soziala birbanatzeko irizpide nagusi gisa; ingurugiroarekiko arduraren, lurraldeko baliabide eta bioaniztasunaren kudeaketa kontziente, arrazional eta parte-hartzailearen bidez eta komunitateen ingurugiro-eskubideak lehenetsiz; aberastasun kulturala, turista eta bertako biztanleen arteko berdintasunean oinarritutako elkartrukerako harremanen bidez, eta tokiko identitate eta kultura balioan jarritz.

Turismoaren kontsumoak bertako ekonomian positiboki eragitea, herrialde hartzaileetan lan postu duinak sortzea, aberastasunaren birbanaketa eta zirkuitu ekonomiko laburren indartzea funtsezkoak dira. Horretarako, ekonomia arloan turismoaren inpaktuak positiboki eralda ditzakeen aspektu bat Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) proiektuen kontsumitzaile gisa parte hartzea da. ESS-ren proposamenak dimentsio ekonomikoa gairatzen du, eta ikuspegi soziala, kulturala eta ingurugiroarekikoa barnebiltzen ditu bere praktiketan. ESS-k ez ditu soilik turismoaren mozkinak sortu eta banatzeko beste arau batzuk mahai gaineratzen, baizik eta ekoizpena, merkaturatzea, finantzazioa eta kontsumoa norabidetzeko bestelako printzio eta balore batzuk ere sustatzen ditu.

Alde batetik, turismo eraldatzaile batek bestelako prozesu, arrazionaltasun eta praktika ekonomiko batzuk bultzatzen ditu. Hala ere, erronka nagusia kontsumo turistikoaren balore, ideia eta praktiken aldaketa baten bidean aurrera egitea da, horrela jendarte-proiektu sostengarriago, justuago, inklusiboago eta parekideagoak egonkortzeko.

## Bibliografía

- Benseny, G. (2006). "El espacio turístico litoral". Redalyc. Aportes y transferencias, v.10, n.2.
- Benseny, G. (2012). "La conformación espacial y evolución turística de Villa Gesell (Argentina)". I Taller Internacional de Historia y Turismo, Eje 4. Turismo, ciudades, infraestructura. Centro de Estudios Históricos, facultad de Humanidades, Universidad Nacional de Mar del Plata.
- CEPAL. (2008). Complejos Hotelero – inmobiliarios integrados: inversiones y estrategias empresariales. Comisión Económica para América Latina y el Caribe.
- Fernández Miranda, R. (2011). Viajar perdiendo el Sur. Crítica del turismo de masas en la globalización. Libros en Acción.
- Fernández Miranda, R. (2015). "Costas, mercancías y derechos. Hacia un paradigma sustentable del turismo costero. Construcción, crítica y alternativas al modelo dominante de sol y playa" en Encabo, M. (Ed.) Actas del Foro Perspectivas Innovadoras de Turismo Latinoamericano de Naturaleza. Universidad Nacional de Comahue.
- Fernández Miranda, R. (2013). "Los límites olvidados. Reflexiones sobre turismo global, sostenibilidad y decrecimiento". Alba Sud.
- Fernández Miranda, R. - Ruiz, R. (2010), Políticas públicas, beneficios privados. Mecanismos, políticas y actuaciones públicas para la globalización del turismo. Foro de Turismo Responsable.
- Harvey, D. (2017). El cosmopolitismo y las geografías de la libertad. Ediciones Akal.
- Hernández, F. (2009). "La relación sociedad-naturaleza y el turismo. Reflexiones sobre el turismo de sol y playa". Observatorium, Revista Electrónica de Geografía, v.1, n.1.
- Korstanje, M. (2008). "El ocio como mecanismo de control político: tras la búsqueda mítica del triunfo". Nómadas Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas n. 19.
- Korstanje, M. (2009). "Nociones de psicoanálisis aplicadas al turismo y al desplazamiento". Nómadas Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas n. 24.
- Organización Mundial del Turismo (2018). "Resultados del turismo internacional en 2017: los más altos en siete años".